

2018ko EKAINAK 12ko OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hemezortziko ekainak hamabi.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jule Aranburu Mariezkurrena.

Asier Aguirre Murguiondo.

Xabier Aranburu Altuna.

Julen Zabala Garcia.

Ion Mujika Perez.

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Erkuden Aguirre Arruabarrena.

IDAZKARIA:

Iñaki Alonso Antolín.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Eguerdiko ordubiak.

AMAIERA ORDUA: Eguerdiko ordubi tèrdiak.

1.- Aurreko aktaren onespena.

Lehenik, eta aurreko Bilkurateko aktak irakurri ondoren, 2018-04-12 ohikoa eta 2018-05-22 ezohikoa aho batez onartzen dira.

2.- Alkatetzaren Ebazpenak.

Jarraian Idazkariak, aurreko ohiko Bilkuraz geroztik egon diren Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du. Honakoak dira:

* Cespa Gestion de residuos S.A.Uri Mutiloako isurtegiko 3. Fasearen amaiera egiteko obra baimena emanaz.

* 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartuz.

3.- 2017ko likidazioan gastu arauaren txostenaren berri eman Osoko Bilkurari.

Jarraian Idazkari-kontu hartzaileak hitza hartzen du adierazteko Alkatetzaren Ebazpenez onartutako 2017ko likidazioan ikusten da Udal honek ez duela bete

gastuaren erregelarekin. 2017an gastu konputagarria Legeak ezartzen duen baino handiagoa izan da, baina 2016ko altxortegi gerakina erabiltzeagatik izanik arau hau aplikatzen da:

“Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko finantziarioa egin beharko dute, gutxienez 2018-2020 epealdia aurreikusiko duena, eta jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, arauen ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren orde, 1/2013 Foru Arauen 5. Artikuluaren hirugarren paragrafoan aurreikusten duen komunikazioa aurkeztu diezaioke Udaltzari.”

Hau ikusita Idazkari-kontu hartzaileak komunikazioa egiten dio Udaltzari.

4.- Fakturen onarpena.

Jarraian faktura eta dirulaguntza hauek onesten dira:

ZKIA	KONZCEPTU	ZENBATEKOA
1	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK	1.497,30
2	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK	36,30
3	PLASMAR S.A.L.: BOLATOKIAREN KONPONKETA	4.882,68
4	GABIRI S.L.: JARDUERA FISIKA SUSTATZEKO BIDEA EGOKITZEA	5.009,40
5	KILOMETROAK: DIRULAGUNTZA	60
6	GOIMEN: URTEKO KUOTA	3.167,50
7	CHIP,S: MATERIAL INFORMATIKOA	37,95
8	GRAFICAS SAN MARTIN: BULEGO MATERIALA	481,58
9	MAQUELSA: FOTOKOPIAK	26,11
10	BERRI LANTEGIA: MATERIALAK	65
11	BIOK S.L.: MATERIALAK	73,89
12	GABIRI S.L.: LIERNIKO URBANIZAZIOA LIKIDAZIOA	24.448,47
13	GABIRI S.L.: LIERNIKO URBANIZAZIOA ESTRAK	3.481,17
14	GABIRI S.L.: LIERNIKO BIDEAN UREN KNALIZAZIOA	2.555,52
15	CORREOS: POSTA KUOTAK	16,83

5.- 2018/03 Aurrekontuaren kreditu aldaketan onarpena.

2018/03 Aurrekontuaren Kreditu aldaketa ikusita eta Udal Idazkariak egindako txostena kontutan hartuta, aho batez hasierako onarpena egiten da. 2018/03 espedientearen kreditu gehigarriak onartzeko da. Espediente hau jendaurrean jarriko 15 eguneko epean. Erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, beste akordiorik hartu gabe, behin betiko onartutzat emango da.

Aldaketa hauek dira:

2018/03 ESPEDIENTEA:

Gehikuntzak:

643-15100-01	Etxebizitzen proiektua	14.520,00
622-15100-01	Etxebizitzen obra	285.480,00
601-15100-01	Lierniko urbanizazioa eta urak jaso	6.026,00
623-41400-02	Minatan hesiak jarri	6.410,00
623-33400-02	Eskola zaharrak berritu	22.000,00
601-41400-03	Bide berdean luizia konpondu	10.830,00

FINANZIAZIOA:

870-01	2017ko Altxortegi gerakina	345.266,00
--------	----------------------------	------------

6.- Peoi baten kontratazioa sortutako Lan-Poltsatik.

Jarraian peoien lan-poltsa bat eratzeko, hautaketa prozesua bukatu ondoren epaimahaia egindako proposamena aho batez onartzen da. Aurkeztutako langileen sailkapena horrela izan da:

- 1.- Angel M. Mujika Goya.
- 2.- Jesus Zubizarreta Urbiztondo.
- 3.- Iban Gonzalez Garcia.
- 4.- Joseba Landa Telleria.

Segidan proposatzen da poltsa honetatik peoi baten kontratazioa egitea, Jesus Zubizarretari hain zuzen ere, (Angel M. Mujika Goya dagoeneko lanen dago) udalerrian udako ez ohiko garbiketarako egiteko, baldintza hauekin:

- Kontratazioa “obra edo zerbitzu bukaera arte” izango da.
- Kontratazioaren data 2018ko ekainaren 29tik, aurrera.
- Lanaldia osoan.
- Soldata: Udalitzeko 6. Mailarena.

Proposamen hau aho batez onartzen da.

7.- Dirulaguntzak

Alkateak hitza hartzen du Eusko Jaurlaritzako Leader programako diru laguntzetan azkenean bi proiektu aurkeztu direla adierazteko: Plazan bukatu gabe dagoen eraikuntzan etxebizitzak bukatzeko eta eskola zaharretan beheko lokala egokitzeko. Beste aldetik Errotatzoko proiektua Eusko Jaurlaritzako Ondare Historikoan eta Estatuko % 1,5 kultural programatan aurkeztuko dugula adierazteko eta

udaleko artxiboaren antolakuntza Eusko Jaurlaritzako dirulaguntzetan ere bai. Zinegotzi guztiak honekin adostasuna adierazten dute.

8.- Galde-erreguak.

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da eguerdiko ordubi tèrdiak direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.